

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure aterpetxearen funtzionamendua aurrera eramaten lagunduko diguten elkarteak hurrengoak izango dira:

- Lea Artibaiko turismo bulegoak: herri ezberdinetako ekintzen berri emango digute eta bertara hurbiltzen diren turistei gure aterpetxearen berri emango die.
- Jai Alai autobusak eta Iñaki Arakistain taxia :antolatuko ditugun ekintza ezberdinak burutzeko erabiliko ditugun garraio elkarteak dira
- Ikaran baserria:Amoroton kokatuta dagoen baserri bat da. Gure bezeroentzako irteera hau antolatuko dugu, gazta nola egiten den ikusi eta eguneroko baserritarren bizimodua ezagutu ahal izango dute.
- Mendexako Abentura Park :gure bezeroak parke honetan tirolinetan ibili, eta rokodromoaz disfrutatu ahal izango dute.
- Leaktibai Elkarteak: Surfa,piragua,puenting,rafting moduko deporteak praktikatu ahal izango dituzte.
- Lakaerdi Sagardotegia: sagardotegi esperientzia bizi nahi duten bezeroentzako ekintza bat izango da.